



4 INAUTERIAK

Munduko Kulturak eta Euskal Inauteriak gertu

Otsailaren bederatzia eta hamarrean ospatuko dira Inauteriak eta Munduko Kulturak da herritarren proposamenetik hautatutako gaia. Igandean berriz Euskal Inauteriek kolorea emango diote herriari. Hauetan parte hartzea sustatu nahi du Ttakun elkarteak eta arratsaldeko ohiko desfileaz gain, igande goizean ere jaia antolatuko du Okendon.



5 ELKARRIZKETA

Xanti Telleriaren zaldiak lehen postuetan

Zaldi lasterketa herrikoien denboraldia hasi da eta Pepenea baserriko Xanti Telleriaren zaldiak lehen postuetan izan dira. Estai behorra lehengo postuan izan da Getariko eta Ondarretako hondartzetan burututako probetan. Indar zaldia, berriz, hirugaren izan zen Getarian eta bigarren Donostian. Xanti Telleriarekin izan gara probei eta denboraldiari buruz gehiago jakiteko.

Memoria historikoa argitu nahian

Islada Ezkutatuak, Euskal Memoria, Lau Haizetara Gogoan eta Lasarte-Oriako Udalaren arteko elkarlana egongo da

Islada Ezkutatuak taldea, Euskal Memoria fundazioa eta Lau Haizetara Gogoan koordinadora Lasarte-Oriako memoria historikoa argitu eta zabaltzeko ardura hartu dute. Horretarako hitzarmena sinatu dute Lasarte-Oriako Udalarekin.

Pablo Barrio Lasarte-Oriako alkatea, Mikel Amenabar Islada Ezkutatuak taldeko kidea, Arantxa Erasun Euskal Memoria fundazioeko kidea eta Xabier Erasun Lau Haizetara gogoan koordinadorako kideak Lasarte-Oriako oroiaren historikoa biltzeko egingo den lanari buruzko prentsaurrekoa eskaini zuten.

Pablo Barrio alkateak adierazi zuenez, "herria ez da memoria historikoa ez duen herria; egitura administratiboa izan daiteke, mapetako puntu bat izan daiteke..."

Era honetara, gure herriko memoria historikoa argitzeko Islada Ezkutatuak taldearen asmorekin bat egin du udalak, Lasarte-Oriako gerra garaian jasotako gertakariak berreskuratzeko.

Horretarako Euskal Memoria fundazioa, Lau Haizetara koordinadorekin eta Islada Ezkutatuak taldearekin hitzarmena sinatu du lanean lagundu eta informazioa zabaltzeko helburuarekin.

Ezkutatutakoa jakitera

Mikel Amenabar Islada Ezku-



Euskal Memoria, Islada Ezkutatuak eta Lau Haizetara gogoan erakundeetako kideak eta Pablo Barrio alkatea prentsaurrekoan.

tatuak taldeko kideak azaldu bezala, 1936an eta ondorengo urteetan "gure herrian izkutatuak izan ziren gertaerak ezagutzera eman nahi ditugu".

Amenabarrek azaldu legez, taldea aurkeztu zuten konturatu ziren herrian gerra bizi zuten herritarrek edo herbesteratutakoak ugarriak zirela eta haien testigantza edo etxean jasotakoa eman nahi zutela aditzera. Eta hauekin pixkana biltzen ari direla azaldu zuten.

Honetaz gain, eskerrak eman zituzten eginkizun honetan lagunduko dieten erakundeak.

Justizia egin

Xabier Erasun Lau Haizetara gogoan koordinadorako kideak Nazio Batuen araudia jarraituz, oroimen historikoa

bildu eta egia, justizia eta erreparazioa bilatzen dutela.

Era berean, Lasarte-Oriako altxamendu frankista eta diktadura faxista garaian gertatutako aztertu eta zabaltu nahia agertu zuten.

Horretarako beste beste, herrietako artxiboak erabilita gertaerak aztertu eta tokiak arakatu dituzte.

Honetaz gain, Islada Ezkutatuak taldeari eta Udalarai haiei aholkularitza eskainiko die.

Zabaltzea eman

Euskal Memoria fundazioaren eginkizun nagusia burutzen den lana jakitera ematea, zabaltzea izango da.

"Egia izkutatuak izan da eta osatzeko dago oraindik. Lan handia dago egiteko. Baina ikusi dugu garrantzitsua dela ere biltzen dena zabaltzea"

azaldu zuten Arantxa Erasun Euskal Memoria fundazioeko kideak. Horretarako hitzaldiak egingo direla aurreratu zuten.

Era berean, testuingurua eta frankismoaren errepresioaren osatu eta azaldu nahi dute, "gaur egungo egoera ulertzeko elementuak bertan daudelako". Herritarren parte hartzea sustatu nahi dute, "auzolana ezinbestekoa delako, memoria kolektiboa berreskuratzeko".

Herritarrei deialdia

Hau guztia gauzatzeko, taldeek eta Udalak deialdia egingo diete herritarrei garai hartako testigantza, dokumentu edo argazkiak erazteko. Honetarako 695 756 556 telefono zenbakira deitu dezakete herritarrek.

ELECTRICIDAD ARREGUI

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

www.electricidadarregui.com

Kale Nagusia 39 • LASARTE-ORIA Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521

Nik euskara

2013 EUSKARA IKASTAROAK
Martxan dauden taldeetan txertatzeko

IKASTARO-MODULUAK:
Astean 10 ordu, 2:30 ordu astelohenetik-ostegunera.

MATRIKULALDIA:
2013ko otsailaren bukaera arte.

ORDUTEGIAK:
09:00-11:30,
15:00-17:30,
19:30-21:00,
Txandaka biltzeko aukera.

BULEGO ORDUTEGIA:
08:30-19:15

943 36 16 21

Neure kabuz



Gorka Lasa

Urak handi dire

Euskal Herriak duen kokaguneagatik leku berezia dela esan genezake, besteak beste, lurraldea bitan zatitzen duten bi isurgune ditugulako, kantaurokioa eta mediterraneokioa.

Beste hainbatetan gertatu izan den bezala, urtarilaren 12 an, Bilbon, euskal presoan eskubideen alde antolaturiko manifestazioak ere zatiketa ekarri zuen, aldekoen eta kontrakoen artekoa. Baina oraingoan, ordea, zatiketa ez zen giza-uholdea gelditzeko gai izan.

Euskal Herriko iturburu desberdinetan jaio, eta mendietan behera, ibarrak eta haranak zeharkatuz, Bilborarteko autopista eta errepideak hartuz, Bilboko kaleak giza-uholde batez bete ziren, Bilbok gainezka egin zuen.

Manifa garai berean, euria hasi zuen, erruz, goi-behe. Ondorengo orduetan ere ez zuen atertu, bota ta bota, eta urak handitzen zihoazen, ibaiak hazten, bazterrak putzuz betetzen. Hainbat tokitan ibaiak gainezka egin zuten, belardi soroak guztiz estali arte eta larrialdietako emergentzi planak martxan jarri ziren.

Ohi den gisara, ekaitzaren ondoren, barealdia eta urak bere onera. Xabier Leteren kantak dioen bezala: "...Itsasoan urak handi dire, murgildu nahi dutenentzat..."

Argi geratu da uholde guztiak ez direla berdin neurtzen, benetako erantzukizuna dutenek ez baitute larrialdietarako emergentzia plana martxan jartzen, milaka lagun, ur handitan murgiltzeko prest izan arren, beste herritar askoren eskubideak urak eramaten dituen bitartean.

Zorion agurrak



Imanol eta Merche

Pausoka pausoka urteak betetzen. Poliki poliki gurekin ospatzen. Zorionak "bollito"!

Nerea

Zorionak guraso, aitona eta izeba-osaberen partetik. Zortzi muxu handi.

Josu

Zorionak, aurten badira 14! Ondo pasa! Gurasoak, Xabier eta Ane



Ane

Zorionak Ane, zure 2. urtebetetzean. Muxu handi bat zure familiaren partetik!

Aitor

ZORIONAK Aitor! Ondo pasa zure seigarren urtebetetzean. Asko maite zaitugu. Segi horrela txapeldun!!!

Juan

Zorionak zuen urrezko ezteingatik eta elkarrekin pasatako 50 urte hauengatik familia guztiaren partetik.

Emerita

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo txintxarri.info web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

- 34 metro karratuko lokal komertziala salgai Sasoetan. Prezioa: 25.000 euro. Harremanetarako, 662919138 edo 617175226.
- Garajea alokatzen da Atsokarren, Caddie plazan. Garajea handia da eta sarbide erraza du. 659 021 945
- Garaje itxia alokatzen da Nagusia 69 zenbakian. 70 euro dira. Harremanetarako deitu 943 575 964 telefonora.
- Garaje itxia alokatzen da Lasarte-Oriako erdialdean. Interesatuak daudenak deitu 655 721 774 telefonora.

Salerosketak

- Helduentzako bizikleta eta flexioak egiteko tabla salgai. Banaka saltzeko prest. Ana. Telefono zenbakia, 943 363 371.

Lan-eskariak

- Geriatrian laguntzailea, eskarmentua duen pertsona arduratsua jende adindua, gaixok edo minusbaliatuak zaintzeko eskaintzen da. Profesionaltasuna eta tratu ona eskaintzen du. Carlos, 680 983 527.
- Emakumea eskaintzen da haurrak edo per-

- tsuona adinduk zaindu edo etxeko lanak egiteko orduka edo interna moduan lan egiteko. Harremanetarako, 608 131 170.
- Ume edo aitona-amonak zaintzen, etxeko edo garbiketa lanetan aritzeko prest. Doris 943 404 015
- Negutegietan, garbitzaile edo fruterekin lana egingo nuke. 625 423 540
- Emakumea eskaintzen da interna moduan edo orduka etxeko lanak, garbiketa edo helduak zaintzeko. Esperientzia eta paperak dauzka. Harremanetarako, 619 803 199.
- Neska bat eskaintzen da interna moduan lan egiteko; pertsona adinduk zaintzeko. Telefonoa: 663 552 573

Bestelakoak

- DBH mailako ikasleei kalse partikularrak emateko prest nago. Ordu-tegi malgua arratsaldetan. Harremanetarako, 695 737 330.
- Astelehenean haur manta galdu zen Beko kalen, kiroldegi eta osasun zentro artean. Arkaitz izena du bordatua. Aurkitu duenak dei dezala 616 333 017 zenbakira. Pili.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotza

- Alex Urkiola Martinez, urtarilaren 16an.



Heriotzak

- Angel Parada Muñoz, urtarilaren 24an, 64 urte zituela.
- Ignacio Fernandez Pombar, urtarilaren 23an, 76 urte zituela.
- Felix Marguieles Martin, urtarilaren 19an, 83 urte zituela.
- Gerardo San Millan Garcia, urtarilaren 19an, 72 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 25	Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Larunbata, 26	Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Igandea, 27	Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Astelehena, 28	Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
Asteartea, 29	Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Asteazkena, 30	De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Osteguna, 31	Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero
Aldabe, Perkaitezgi 8
Hernani, Tel.: 943 336 022

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udalzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Udalaren telefonoak

Erregistroa	943 376055
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kiroldegia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuak	943 376179
KIUB	943 361605
Udal euskaltegia	943 361621
Munteri AEK	943 372863

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



Lasarte-Oriako Udala

Txintxarrik ez du bere gain hartuko irizti-artikuletan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Nerea Eizagire, Jon Altuna I., Maider Azumendi, Jon Altuna E.
txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Aser Odriozola, Jone M. Hernandez, Oihana Salazar, Pako Aizpitarte, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

GIZARTEA

Genero-indarkeriako erasoak

Gizon bat atxilotu zuen Ertzaintzak asteazkenean Pintore kalean

Etxebizitza batean indarrez sartu nahi izan zuen 39 urteko gizonekoak bere bikote ohia beste batekin bertan zegoelakoan. Gizonak portaleko atea hautsi zuen baita etxebizitzarena ere eta barrura sartzea lortu zuen. Udaltzainak eta Ertzaintzak bertaratu eta atxilotuta eraman zuten bigarrenak.



Atea puskatu zuen erasotzaileak etxebizitzara igo ahal izateko.

Asteazkenean 39 urteko gizoneko bat atxilotu zuen Ertzaintzak Pintore kalean bikote ohia beste batekin bertan zegoela eta, haserretuta hauek erasotzeko asmoarekin sartu omen zen.

Ertzaintzak jakitera eman zenez, asteazkenean goizeko laurak aldera gertatu zen erasoak. Herritar batek gizon bat bere etxeko atea puskatu eta bertan kalteak eragiten ari zela salatu zuen.

Bikote ohia bilatu

Udaltzainak bertaratu ziren Pintore kalean kokatutako etxebizitzaren arazoak zein zen ikustera eta barruan aurkitu zuten gizona urduri eta gau-

zak puskatzen. Dirudienez bere bikote ohia beste pertsona batekin etxe horretan zegoela eta, haserretuta hauek erasotzeko asmoarekin sartu omen zen.

Mehatxuak

Ordurako etxeko jabea kalera irten zen ihesi eta atxilotutakoaren bikote ohiarekin hitz egin ahal izan zuen.

Bikote ohia bertaratu eta Ertzaintzari sms bidez jasotako mehatxuak erakutsi zituzten.

Erasotzaileak bestetik, ertzainei armarik ez zuela esan zien baina hauek Lasar-

te-Oriako udaltzainen laguntzarekin eta lekukoak esandakoa ziurtatu nahian egindako miaketan, labana aurkitu zioten gizonari eskubiko galtzerdi barruan ezkatututa.

Ertzaintzak gizona atxilotuta eraman zuen. Atxilotuta gertatu bitartean gizonekoak, urduritasun zantzuarekin, bere bikotearen aurkako mehatxu larriak eta irainak egin zituen Ertzaintzak hala jasota. Horrela erasoak genero indarkeriatzat jo zuen Ertzaintzak.

Asteazken goizean oraindik erasotzaileak atarian eragindako kalteak ikus zitezkeen.

Sorturen hirugarren bilera

Sorturak eratzeko prozesu herri-tarra burutu nahi izan du eta horretarako parte-hartzea bultzatzeko asmoz, Euskal Herriko hainbat herrietan batzarrik burutu ditu. Lasarte-Orian larunbatean egingo da hirugarren batzarra Villa Mirentxun, 9:30etan hasita.

Larunbatean antolakuntza

Sorturen eratzeko prozesurako bi bilera egin dira herrian. Bilera hauek irekiak izan dira eta herritar asko gerturatu da prozesua bertatik ezagutu eta euren iritzia emateko asmoarekin. Orain arte oinarri ideologikoak eta ildo politikoa aztertu dira.

Lasarte-Orian larunbatean egingo da hirugarren bilera eta antolakuntza ereduak eta funtzionamendua izango dira eztabaidagai. Bertan landuko dira barne bizitzari dagozkion gaiak, barne mailako demokraziaren lehentasuna edo egituraren parekidetasuna eta baita militantzia motari dagozkionak. Gainera, herrietako, herrialdeko eta nazio-



Azaroan burutu zen lehenengo bilera Villa Mirentxun.

mailako egiturei buruz ere hitz egingo da eta Lasarte-Oriako antolakuntzaren inguruan eztabaidatzeko parada izango da. Ildo politikoa txostenari egindako emendakinek ere bozkaturiko dira.

Balorazio positiboa

Batzaren balorazioa positiboa da sustatzaileen arabera. "Bilera hauen metodologia berritzailea izan da, parte hartzeari eman zaio garrantzia eta talde txikietan eztabaidatu da gai ezberdinen

inguruan. Oinarri ideologikoari dagokionez, sozialismoa, feminismoa edo euskara tratatu dira eta ildo politikoa dagozkionean, independentzia eta sozialismoaren bidea, euskal langile herriak duen betekizunaz besteak beste".

Otsailaren 23an Sortu talde politikoa sorrena ekarriko duen I. kongresua egingo du ezker abertzaleak.

Larunbateko batzar irekia dela gogoratzen dute eta parte hartzera gonbidatzen dituzte herritarrik.



ELKARTASUNA

Porrotx eta Marimotots korrika

Wukroren aldeko ultrafondoa egiten ari da Xabier Salillas Hernaniko atletismo pista. Astelehenean hasi zen eta egunero, goizeko 07:00etan hasi eta gaueko 21:00ak bitartean ez da geratu.

Astearte goizean goizetik Wukroren aldeko Hernaniko taldeko kideak, Anboto tabernako lagunak eta AEKko ikasleek egin zuten Salillasekin batera korrika. Arratsaldeko 17:00etan berriz, Porrotx eta Marimotots pailazoak hurbildu ziren Salillas-i animoak eman eta berarekin korrika egitera eta hauekin batera Peio Fadrique herriko korrikalaria.

Aipagarria da, duela bi urte, 2011ko Aste Santuan Etiopian bertan, Wukro hirian, bisita egin ziotela Angel Orlan Hernaniko misiolariari Lasarte-Oriako pailazoekin.

EUDEL

Udalak ez du bere ekarpena egingo

Azken udal hauteskundeak burutu ondoren EUDEL-eko zuzendaritza berria osatu zenetik, EH Bildutik elkarrean helburuak eta funtzionamenduz eztabaida sakona zabaltzeko beharra ikusi zuen alderdiak jakitera eman duenez.

Honen aurrean erantzuna egon ez denez, EH Bilduk elkarrean parte aktibo ez izateaz gain, urtarrietik aurrera Bilduk gobernatzeko dituen udalek, "eta eztabaidari ateko zabaltzeko arte", ez dute dagokien ekarpen ekonomikoak ordainduko.

Erabaki honekin, EUDEL-ek bere isiltasuna apurtzea eta inplikaturik dauden alderdi politikoa jarrera aldatzea bilatzen du EH Bilduk, "eztabaida bultzatu eta elkarrekin izan dezaken potentzial eta indar guztia asartzeko". Hau horrela izanda, Lasarte-Oriako udalak bat egin du erabakiarekin.

AMARAUN KLUBA

Gurasoekin Makilaje ikastaroa

Amaraun Klubak antolatuta, otsailaren 2an, makilaje ikastaroa izango da Ludotekan, 11:15etik 13:00era. Bertan inauterietarako nola margotu ikasi ahal izango dute besteak beste. Parte hartzen duten haurrek heldu batez lagunduta joan beharko dute.

Izena emateko epea urtarilaren 31era arte egingo da irekia Ttakuneko bulegoan, aisia@ttakun.com helbidean edo 943 371 148 telefono zenbakira deituta. Ekintza hiru eta zortzi urte arteko haurrei dago zuzenduta.

SAHARA

Oporrak bakean-en aurkezpena gaur

"Hijos de las Nubes" dokumentala ikusi ahal izango da gaur Manuel Lekuona kultur-etxean 19:00etatik aurrera. Proiektzioa Gizarte Zerbitzuetatik antolatu dute eta honetan Oporrak bakean 2013 ekimenaren aurkezpena egingo dute.

Proiektzioaren ostean Gorka Lizarraga Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak, Maite Higuero teknikari buruarekin batera Oporrak Bakean programaren berri emango dute.

Aurten ere Saharako haurrek uda garaian etxean jasoko dituzten familiak behar dira eta honekin informazioa eman eta esperientzia bertatik ezagutzeko aukera eskaini nahi dute saio honekin.



lako Oporrak bakearen egitasmoa aurkezpeneko argazkia.

Hasi mozorroak prestatzen

► Larunbatean Munduko kultura ezberdinek hartuko dituzte herriko kaleak ► Euskal Inauteria igandean egingo da lehenengoz Ttakunek antolatuta, honetan berrikuntzak daude

Otsailaren bederatzia eta hamarrean ospatuko dira Inauteriak. Aurtengoan Munduko Kulturak da herri-tarren proposamenetatik hautatutako gaia. Igandean berriz Euskal Inauteriek kolorea emango diote herriari. Hauetan parte hartzea sustatzea du helburu lehenengoz antolatzen dituen Ttakun elkarteak.

Maidera AZURMENDI

Inauteriak bertan dira eta mozorroak prestatzeko garaia iritsi da. Aurten parte hartzea sustatu nahian Inauterietako gaia aukeratzeko proposamenak jaso ziren parte hartze postontzietan baita internet bidez ere.

Proposamen guztiak bilduta, herriko elkarte eta konpartsa ezberdinekin egindako bilera irekian hauek aurkeztu eta denen artean Munduko Kulturak gaia hautatu zuten.

Horrela dagoeneko herriko konpartsa eta koadrilak lanean dira. Amaraun klubeko haurrak, zortzi urte artekoak, tribu afrikarrez jantziko dira eta Gazte klubekoak berriz, ijotze. Kuadrillategiko gaztetxoak taldeka mozorrotuko dira eta batzuek erabakita dute bikingoz jantziko direla adibidez.

Inauteri parte hartzaileak

Festa hauek herrian indartzeko asmoz, eragile ezberdinak egitarau zabala antolatzen ari dira bilera irekietan otsailaren 9 eta 10eko astebururako.

Iaz egin bezala, asteburu honetarako balkoiak dotore apaintzeko deia ere luzatu da Festak batzordetik herria girotzeko asmotan.

Larunbatean goizean 12:00etatik txaranga ibiliko da herrian zehar eta Okendon festari hasiera emango zaio. Ohi bezala konpartsa ezberdinek prestatutako dantza eta esketxak ikusteko aukera izango da hemen.

Karpan 14:30etatik aurrera bazkari herrikoa egingo da norberak eramandako bazkariarekin. Karpan mahaiak eta aukialki jarriko dira hau gauzatu ahal izateko eta herriko koadrilak animatzen dituzte bertan parte hartzera.

Desfile irekia

Arratsaldean Zabaletakoek 16:30ean txokolataa banatuko dute Okendon eta ondoren 17:00ak aldera konpartsen desfilea abiatuko da Okendotik iazko ibilbidea eginaz.

Gogoratu nahi da desfilea irekia dela eta konpartsa bat osatzea ez dela beharrezkoa honetan parte hartzeko. Lagun koadrilak zein norbanakoak joan daitezke desfilean. Honekin lotuta, azpimarratzen da desfilean egoteko ere mozorroak ez duela derrigorrez gai nagusiarekin bat egin behar.

Honen ostean, 19:00ak aldera, Gazte Klubekoek bingo handia egingo dute Okendon.

19:00etatik aurrera Dinbi Bandako batukada arituko da herriko kaleak girotzen eta 20:00etan plazan ere erromeria egingo da Amalurreko trikiti eta pandero eskolakoen musikaren laguntzaz.

Gauean berriz, parranda bota nahi dutenentzat karpan disko festa egingo da.

Euskal Inauteria

Igandean Euskal Inauteria egingo da. Aurten lehenengo urtez, Ttakunek antolatuko ditu 30 urtetan antolantuzan



Iaz Olinpiadak izan zen inauterietako gaia eta kirolari ezberdinak ikusi ahal izan genituen herriko kaleetan barrena.

aritutako taldeak lekukoa pasa ondoren. "Euskal Inauterien ohiko ekimenak galdu gabe, berrikuntzak sartu nahi izan ditugu festa herrikoia, parte hartzaileagoa izan dadin".

Berrikuntzak asko izango direla azpimarratzen da Ttakunen baitan antolantuzan ari den lan taldetik. Bestek beste, "aurreratu daitezke Okendo plazan goizean mokadu bat egiteko aukera izango dela eta jaia". 12:00etatik aurrera txorizo pintxoak, salda eta sagardo dastaketa egin ahal izango da eta euskal inauterietako doinu herrikoiekin dantzatu.

Herritarrei jaian murgiltzeko gonbitea luzatu nahi zaie "goizean festa giroa nagusitzea nahi dugu, ez dira dantzak jakin behar parte hartzeko".

Mozorro errazak

Honekin batera elkartetik Euskal Inauterietako txantxo mozorro ezberdinak prestatzeko animatzen dituzte herritarrek. Hauek erraz egiteko moduak eskuragarri jarriko

dira Txintxarri.info atarian eta herritarren artean banatuko diren eskuorrietan.

"Oso erraz egin daitezke mozorroak, ezaugarri bereziena aurpegia estalita eramatea da eta txanoa, lastozkoa edota kartulinarekin egindakoa izan daiteke", herritarrei mozorroak egiteko tresnak emanaz, parte hartzea handitzea sustatu nahi da.

Ohi bezala arratsaldean dantza egingo da 17:30ean, aurten Okendotik abiatuta eta hau amaitzean hartza erreko

da plazan bertan.

Ttakunetik dei berezia egingen da Euskal Inauterietan haur zein helduek parte har dezaten "Euskal Inauteriko pertsonaia ezberdinak ekarri nahi ditugu eta jai giroan herrian festa sustatu. Horretarako ondo pasatzeko gogoia besterik ez da behar".

Oraindik egitarauak guztiz zehaztu gabe daude beraz aldaketak suerta daitezke datozen egunetan. Bitartean joan mozorroak prestatzen Inauteriak iritsi dira eta!



Txantxoz, arropa koloretsua, kartulinarekin egindako txanoa eta aurpegia estalita.



LASARTE-USURBIL INSTITUTUA



Zure aukera

- D.B.H.
- BATXILERRA



lasarte-bhi@instillasarte.net • Buenos Aires aldapa, 1 - LASARTE-ORIA

Tel.: 943 372 852 / 943 372 277



Bakaikuko inauterietako irudian Ziripot, zakuekin egindako jantzia.

Xanti Telleria Zaldien jabe eta lasterketa herrikoietan parte hartzaile

“Ondo prestatuta dauzkat zaldia”

■ Ondarretako eta Getariako lasterketak irabazi ditu Pepenea baserriko Estai behorrak
 ■ Indar odol garbi inglesak tendoian min hartu arren bigarren amaitu zuen Donostian

Hasi da aurtengo zaldi lasterketa herrikoien denboraldia eta Pepenea baserriko Xanti Telleriaren Estai behorra nagusi izan da lehen bi probetan. Bere lagun Jose Manuel Martinek gidatuta, Estai irabazi ditu Getariako Malkorbe hondartzan urtarilaren 13an eta Donostiako Ondarreta hondartzan urtarilaren 20an egin ziren lasterketak. Xanti berak darabilen Indar zaldia aldiz hirugarrena izan zen Getarian eta bigarrena Donostian, baina seguraski bukatu da bere ibilbidea Ondarretan tendoia hautsi zuen eta. “Beste bat bilatu beharko dut” esan digu Xanti Telleriak.

Jon ALTUNA IZA

Zaldi eta behorrak ondo prestatuta dauzka Xanti Telleria Usurbilen bizi den lasarteoriatarrak. Horixe da bere zaletasun nagusia eta ondo gobernatuta dauzka odol garbiko zaldi ingelesak. Orain atsedean hartuko dute martxoan Zumaia eta Lekeitioko hondartzetan egingo diren probetara arte. Gero, udan egingo dira belar gaineko txapelketa herrikoiak.

Ondo prestatuta dauzkat zaldi eta behorrak...
 Ahal dena egiten dugu. Ondarretan “Estai” aurrena, “Indar” bigarren eta “Luz” laugarren izan ziren.

Zaldi berria daukazu “Indar”?
 Bai, 5 urteko zaldia, odol garbi ingelesa, baina tendoia hautsi zuen Donostian eta kendu egin beharko dut.

2012an, Lekeitioko proban irabazi nuen Indarrekin. Gero ia urte osoan geldu eduki eta orain bigarren izan da Donostian eta hirugarren Getarian. Pena da, baina kendu egin beharko dut. Orkatila hautsita zuen Hipodromoan erosi nuen, baina oso ondo zebilen.

“Estai” behorra, berriz, esperimentzia handikoa da. Aurten bi probatik biak irabazi ditu...
 Bi, ez, guztira, azken hamar karrerak irabazi egin ditu. Iaz denak eta aurten bi segidan.

Zenbat urtetan ibiltzen dira ondo zaldi-behor hauek?
 12 urtean gutxi gorabehera, gehienez 15 urtean. Getarian bigarrena geratu zen Eneko Urbietaren Airon zaldia baditu 12 urte eta ondo dabil. Donostian hirugarrena izan zen.

“Estai behorrak parte hartu duen azken hamar lasterketetan lortu du garaipena. Iaz guztiak irabazi zituen eta aurtengo biak segidan

Beraz “Estai” urte batzuetarako badaukazu...

Hankaren bat ez bazaie haus-ten edo horrelako ustekabe edo ezbeharrak ez bada, bai, baina beti izaten dute zer edo zer. Arrisku handia izaten da horrelako probetan. Pentsa, bost urtetan jada lau zaldi kendu ditut, “Indar” bosgarrena izango da. Nahikoa egin zuen igandean min hartu eta bigarren amaitzearekin.

Badituzu zaldi batzuek ezta? “Luz” zaldiarekin dabil Ander Iruretagoiena antiguotarra, laugarrena izan zen igandean eta Getariako kontrolazio proba irabazi zuen

Bestalde, “Kalimotxo” izenekoa hipodromoko probatarako daukat, Hipodromoko lasterketetan parte hartzen du. Imanol Mugika iloba ere ibiltzen da lasterketetan eta hark baditu beste hiru.

Jose Manuel Martin lagun ona daukazu lasterketetarako, ondo dabil zaldi gainean...

Bai, ondo prestatua dago, Hipodromoan entrenatzen da eta. Ia 50 urte dauzka eta zahartzen ari da pixka bat, baina oraindik ondo dabil. Bi lasterketak irabazi ditu.

Zu zeu ere ondo zabilta?
 Bai, nahikoa ondo.

Kilo gutxi behar izaten da, ezta?
 Bai, ahal den gutxiena. Arina behar da zaldi gainean ibiltzeko. 64-65 kilotan, hor ibiltzen naiz.

Sustorik edo erorketa larririk izan al duzu?
 Sustoa asko eta batzuk serioak ere bai. Duela bi urte esku-muturra hautsi nuen erorita eta



Pepeneako Xanti Telleria zaldi gainean. Urtero parte hartzen du Ondarreta hondartzako lasterketan. Jende ugari izaten da begira.

gero, gutxira, Valladolid-en bizkarrezurrean hartu nuen min, orno bat hautsi nuen. Arriskua badauka honek eta ezbehar batzuk izan ditugu.

Hala ere zaletasun handia daukazu...
 Hor ibiltzen gara, beti uzteko baina segitzen dugu.

Krisia nabaritzen al da? Gasto handia al daukate zaldiek?
 Bai gastu dezente. Batez ere puntan ibiltzeko. Batetik pres-taketa eta bestalde zaldiei ematen dizkiegun bitamina eta abarrak. Zaldien jabe batzuek ez dute hainbeste gastatzen, baina nik topera dauzkat jarrita. Ondo gobernatu eta entrenatuak.

Zaldi askok parte hartzen al du proba herrikoietan?
 Euskal Herriko hainbat tokitako 20 bat zaldi ziren Getarian, eta Donostian Gipuzkoa eta Bizkaiko, 12.

Gero udan belarretan antolaten dira proba batzuek, zer nahiago belarra ala hondarra?
 Guretzako errazagoa da hondarretan, hondartzetan arrisku gutxiago izaten da. Belarretan abiada handiagoan ibiltzen gara eta eroriz gero kolpea ere handiagoa da.

Euskal Herritik kanpoko probetara joaten al zara?
 Valladolid eta Bartzelonara joan izan naiz bizpahiru aldiz, baina ez daukat gogo handirik. Hemengo probetan ibiltzen naiz gustura.

Hipodromoan zer moduz?
 Hor gutxitan ibiltzen naiz,

“Guretzako errazagoa da hondarretan, arrisku gutxiago izaten da hondartzetan. Belarretan abiada handiagoan ibiltzen gara

baina gogor entrenatzen ari naiz “Kalimotxo”.
Zer moduz zaldi eta behorrak lasterketetara eramateko?
 Neronek eramaten ditut erre-

molkean. Ondo. Ez dute animalik min hartzeko arrisku handirik. Erremolkeak prestatuta daude gaur egun horretarako, bakoitza bere departamentuarekin. Ez da arazorik izaten.

BADIRA ATE BAT IREKITZEAN HASTEN DIREN AMETSAK.

“LANERAKO GAITASUNETAN TREBATZEKO, TALDE-LANEAN ETA PROIEKTUEN BITARTEZ IKASTEN DUGU.”

Unai Olaeta, Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritzako 3. mailako ikaslea.

PREST

ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa

ARRASATE - OTSAILAK 2 larunbata, 10:30

Enpresagintza Fakultatea

ONATI - OTSAILAK 2 larunbata, 11:00

BIDASOA - OTSAILAK 21 osteguna, 18:00

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

ESKORRIATZA - OTSAILAK 2 larunbata, 11:00

ARETXABALETA - OTSAILAK 2 larunbata, 11:00

Gastronomia Zientzien Fakultatea-Basque Culinary Center

DONOSTIA - OTSAILAK 14 osteguna, 18:00

ARETO NAGUSIAN

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

ATLETISMOA.-

LOKEko atleten domina uzta Gipuzkoako txapelketan

11 domina eta Espainiako txapelketetako bost gutxieneko marka lortu zituzten

Kadete, jubenil eta junior mailako Gipuzkoako txapelketak izan ziren lehengo asteburuan. Herriko atletek lan bikaina egin zuten. Lau atleta Gipuzkoako txapeldun izan ziren modalitate desberdinetan eta Rodriguez, Busto eta Ormazabalek Espainiako txapelketetarako txartela eskuratu zuten.

TXINTXARRI

LOKEko atletek domina eta marka uzta ederra egin zuten lehengo asteburuan kadete, jubenil eta junior mailako Gipuzkoako txapelketan.

Emaitza aipagarrienak Itoitz Rodriguez eta Eneritz Bustok lortu zituzten.

Rodriguezek 200 eta 400 metroetan Gipuzkoako txapela irabazi zuen, 23.17 eta 51.41 segundoko denborak eginez hurrenez hurren

Bustok berriz, hiru urrezko domina erdietsi zituen. 60 metro hesi-lasterketan 9.41eko denbora egin zuen, altuera jautzia 1,59 m. eta 60 metroetan 8.28 seg.

Era honetara, LOKEko lagunek jakitera eman dutenez, txapelketan egindako denbora eta markekin Antequan martxoaren 3an izan-

go diren Espainiako txapelketetan izango dira biak.

Domina gehiago

Baina ez dira domina eskuratu edo markak egin zituzten bakarrik izan.

Idoia Olasagastik 300 metroetan Gipuzkoako txapeldun berria da eta luzera jautzia eta 60 metroetan brontzea eskuratu zuen.

Ane Galardik, berriz, luzera jautzia eta hiruko luzera jautzia gailendu zuen.

Eta Yeray Veroniz gazteak 60 metroko proban bigarren izan zen.

Gutxieneko markei dagokionez, Gaizka Ormazabal atleta otsailaren 9an Donostian egingo diren promesa mailako Espainiako txapelketetan izango da 200 m. proban.

Gutxieneko langa 22.90 segundotan zegoen ezarrita,



Eneritz Busto gaztea hiru probatan igo zen podiumeko goiko mailara.

eta 22.62ko denbora zoragarria eginez lortu zuen etxean izango diren Espainiako txapelketan aritzeko eskubidea.

Oso pozik

Pozik mintzo zen Oscar Gokoitxek LOKEko prestatzailea txapelketa amaituta.

“Zoragarri lehiatu dira neska-mutilak, guztira 11 domina atera ditugu eta horigu bezalako klub txiki baten tzat asko da,” adierazi zuen.

“Espainiako txapelketetarako zortzi gutxieneko denbora eginak ditugu jada taldean eta oraindik maila hobea emateko gai dira guztiak,” gaineratu zuen.

Klub artekoa eta babeslea

Era berean, Maider Rekondo eta Maria Eugi atletak Sabadell-en Super Amara BAT taldearekin junior mailako Klub arteko Espainiako txapelketan lehiatzen izan zirela aditzera eman zigun entrenatzaileak.

Maiderek pisu jaurtiketa proban parte hartu zuen eta Mariak, berriz, 400 m. lasterketan.

Biek lan ona egin zuten eta Super Amara BAT taldea seigarren izan zen.

Hau guztiaz gain, aurtengo denboraldian LOKEko atletismo taldeak babeslea duela ere jakitera eman dute, Rekalde Taberna.

Nazioarteko krosa

Bestalde, asteburu honetan urteroko hitzorduari huts egin gabe, Donostiako Nazioarteko krosa izango da igandean Hipodromoan.

Teklemarian Medhin eritrearra eta Thonas Ayeko ugandarraren arteko norgehiagoka polita ikusi ahalko da gizonen mailan; emakumeen artean, berriz, Sofia Assefa etiopiarra eta Milcah Chemos kenyarra dira favoritoak. Baina nazioarteko atletez gain, lurraldeko atletak ere izango dira lehian, hala nola, Ivan Fernandez gasteiztarra, Antonio Jimenez Pentinel, Diana Martin edo Lidia Rodriguez.

Nagusien mailako lasterketa 12:50ean izango da eta aurretik, 10:50tik hasita, maila ezberdinetako lehiak gozatu ahalko da.

Eta lasterketaz gain, ibilgailu klasiko ikusgarrien III. edizioa izango da aparkalekuan. 25 urte baino gehiagoko kotxeak ikusgai izango dira.

Sarrerak 10 euro balio ditu eta 12 urte baino gutxiago dituzten haurrak doan sartu ahalko dira.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 26
Michelin, 10:30ean
 Texas Lasartearra-Umieta
I. Kadetea, kopa
Michelin, 12:00etan
 Ostadar-Real Sociedad
Kadeteen Ohorezko maila, Euskal Liga
Michelin, 13:45ean
 Ostadar-Usurbil *I. Infantil*
Michelin, 15:30ean
 Ostadar-Burumendi
Jubenilen Ohorezko maila
Michelin, 17:15ean
 Ostadar-Vasconia *I. Erregionala, igoera*
Aita Mari, Zumaia, 17:45ean
 Zumaia-Ostadar
Emakumezkoen maila
Agorrosin, Bergara, 16:00etan
 Bergara-Ostadar
Erregional Ohorezko maila

Igandea 27
Matigoxotegi, Donostia, 09:00etan
 Kostkas M.B.-Ostadar
I. Kadetea, kopa
Michelin, 10:00etan
 Ostadar-Internacional
Infantilen Ohorezko maila, kopa
Michelin, 11:30ean
 Ostadar-Urola *I. Jubenila, kopa*
Herrera, Donostia, 16:00etan
 Sporting de Herrera-Ostadar
Infantil txikia, kopa

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 25
HERRIKO TXAPELKETA
Kirol gunea, areto-futboleko kantxa
19:30ean, Trumoi taberna-Oria Kristaldegia
20:20ean, Buenetxea taberna-Indaux
21:10ean, Balardi Harategiak-Izkiña taberna

 Larunbata 26
HERRIKO TXAPELKETA
Kirol gunea, areto-futboleko kantxa
10:30ean, Albatileria Vertical-El Punto taberna
11:30ean, ISU Leihoak-Ana eta Soi ileapaindegia
12:30ean, Txindoki taberna-Urdaneta H.K.
13:30ean, Ilargi taberna-Izarra bitxitogia

Deustoko kiroldegia, Bilbo, 16:00etan
 Bilbo-Aldaz H.K. *Nazional III. maila*
Kiroldegia, 16:30ean
 ISU Leihoak-Zurt Taberna
Gipuzkoako Liga

SASKIBALOA

Larunbata 26
Azken Portu, Irun, 16:00etan
 Erroibide-Ostadar
Kadete neskak, partehartzea

PILOTA

Ostirala 25
Ibaeta, Donostia, 19:30ean
 Antigua-Intza *Eskuz binaka, II. kadetea*

Ibaeta, Donostia, 19:30ean
 Intza-Zestoa
Eskuz binaka, I. jubenila

Larunbata 26
Kirol guneko pilotalekua, 16:00etan
 Intza-Oiarpe I
Eskuz binaka, infantilak
Kirol guneko pilotalekua, 16:00etan
 Intza-Euskal Giroa
Eskuz binaka, II. jubenila

ATLETISMOA

Larunbata 26
Antonio Elorza belodromoa, Donostia, 10:30ean
 Landaberri, Sasoeta-Zumaburu eta Lasarte IB ikastetxeetako alebin eta infantilek pistako eskolarteko lehiaketako proba libreak dituzte.
Antonio Elorza belodromoa, Donostia, 16:45etik aurrera
 LOKEko atletek Parte hartze askeko probak dituzte.

Igandea 27
Hipodromo, 10:50ean
 Donostiako Nazioarteko krosa izango da.
Idiazabal, 12:00etan
 Herriko hainbat atleta Idiazabaldo XXXIII. Herro krosetan parte hartuko dute.

IGERIKETA

Larunbata 26
Ordizia, 16:00etan
 Buruntza IkT-ko infantil, junior eta absolutuek errendimenduko eta partehartzetarako Ligako 2. jardunaldia dute.

JUDO

Larunbata 26
Lezo, 16:30ean
 LOKEko Josu Olmos, Esteban Martinez, Fermin Balda eta Oscar Garrido gazteek junior mailako Gipuzkoako txapelketan parte hartuko dute.
Lezo, 18:00etan
 LOKEko infantilek eskola kirola egitasmoa 2. sailean saioa dute.

ERRUGBYA

Larunbata 26
Irun, 11:00etan
 Beltzak Ostadar Zarautz-Irun
Euskal Liga, kadeteak
Getxo, 12:15ean
 Beltzak Ostadar-Getxo
Infantil federatua

Igandea 27
Asti, Zarautz, 10:00etan
 Beltzak Ostadar-Hernani
Eskolarteko infantila

GAZTEZ, GOIZA OSOA

Beltzak Ostadar Errugby eskolako benjamin eta alebin mailako gazte txapela dute.
OHARRA: 8:30ean geratu dira Michelingo Kirol gunean autobus hartzeko. Eskolako arduradunek gurasoak ere gonbidatzen dituzte entrenamendu eta topaketetan parte hartzera.

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 26
Atso bakar parkea, 11:00etan
 Bazpi Txirrindularitza eskolako kiudek alebin eta infantil mailako haurrek saioa egingo dute.

 Igandea 27
Antonio Elorza belodromoa, Donostia, 09:45ean
 Bazpi Txirrindularitza eskolako eta herriko txirrindulari gazteek pistako Kluban Gipuzkoako txapelketa dute.

BOLA-JOKOA

Igandea 27
Usurbil, 10:00etan eta 16:30ean
 Ostadar SKT-ko bola-joko taldeak bikotekako txapelketako lehen jardunaldia jokatuko du.

Agenda

Ostirala 25, 23:00etan, Jalgi Kafe-antzokia



Argilunpetan

Lasarte-Oriako Arramazka taldearen Argilunpetan diskaren aurkezpena izango da. Urte eta erdiko lanaren ondorioa da Argilunpetan eta uztaila eta abuztuan grabatu zuen Aitzol eta Aroa Lasaren taldeak Iruñean. Lan berria bederatzi kanta jasotzen dira eta beraien artean lotura dute. Atmosfera bat sortzen dute. Aurreko diskako kanta batzuek eskainiko dituzte ere.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA
Urtarrilaren zehar

Naiara Etxeberriaren margoak ikusgai izango dira. Akriliko eta oleo margoz marraztutako loreak dira.



Antzerkia

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Larunbata 26, 18:00etan

"Ali Baba eta 40 lapurrak" antzezlan eskainiko du Borobil antzerki taldeak. Haurrei zuzendua. Sarrerera, leihatilan 3,70 euro; internet bidez, 3,24 euro.

Astigarraga

Zinea

KULTUR-ETXEA

Larunbata 26, 19:00etan

2012ko Santio jaietan Gazte Asanbladak antolatutako film laburren lehiaketako bost filmak ikusi eta horien inguruko solasaldia egingo da.

Usurbil

Jaialdia

FRONTOIA ETA DEMA PLAZA
Larunbata 26, egun osoa

Korrika Kulturalaren hasiera jaialdia egingo da. Sagardotegi erraldoia eta Esne Beltzaren kontzertua izango dira. Txartelak 10 euro balio ditu.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea 27, 17:00etan

Haurren zinea atalean, "Asterix al servicio de su majestad" filma ikusgai izango da. Sarrerera, leihatilan 3,60 euro; internet bidez, 3,18 euro. Gaztelaniaz.



Igandea 27, 19:30ean

Helduen zinea atalaren barruan, "Le Sky-lab" film frantsesa, Okendo Zinema taldearen eskutik. Sarrerak leihatilan, 5,85 euro; internetez, 5,30 euro. Gaztelaniaz.

Igandea 3, 17:00etan

Haurren zinea atalean, "El origen de los guardianes" filma ikusgai izango da. Sarrerera, leihatilan 3,60 euro; internet bidez, 3,18 euro. Gaztelaniaz.

Musika

EL BAR DE MAU

Ostirala 25, 22:30etatik aurrera

Reggae, ska, jazz, soul... doinuak

entzun ahalko dira "Big Time Sound Systems"-en saioan.

Bideo-foruma

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala 25, 19:00etan

Gizarte Zerbitzuek Sahara eta errefuxiatuei buruzko "Hijos de las nubes, la última colonia" dokumentalaren emanaldia antolatu dute. Ondoren, Oporrak beaean egitasmoari buruz hitz egingo da.



Herritarren txokoa

Txakur askeak Zabaletan

Zabaleta auzoan bi txakur dabilta aske eta auzotarrei kozka egin edo eraso egiten dietela salatu dute. Nahiz eta jabeei jakin arazi, hauek ezer egiten ez dutela adierazi digute.

Herrira elkarretaratzea

Hileko azken ostiralero bezala, urtarrilaren 25ean Lasarte-Oriako Herrira mugimenduak kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar gutzietan parte har dezaten.

Odol aterateak

Hileroko azken astelehenero bezala, odol aterateak egingo dituzte Osasun Zentroan urtarrilaren 28an, arratsaldeko 17:30etik 21:00etara. Anima zaitzete, odolordekatzina da!

Buruntz-Azpi ehiza txapelketa

Buruntz Azpi elkarteak otsailaren 2an txakurarekin egiten den ehiza xeheko txapelketa antolatu du.

Elkarteko bazkide eta kirol bazkideek izena eman ahal dute Buruntz Azpi elkartearen egoitzan. Azken eguna urtarrilaren 31a izango da.

æk
18.korrika

Korrikako laguntzaile txartelak

Korrika 18-ko laguntzaile txartelak honako lekuetan daude salgai: Jalgi Kafe-antzokia, Artizar taberna, Ilargi taberna eta Muntteri-AEK-n. 12 euro balio duen txartela erosiaz, laguntzaile direla adierazten duen pina eta Euskal Herriko ehunka komertziotan beharpenak eskuratuko dituzte herritarrek.

Korrika omenaldirako sarrerak

Usurbilen urtarrilaren 26an antolatu den Korrika 18-ko omenaldirako sarrerak salgai daude Muntteri-AEK eta Jalgi Kafe-Antzokian. Sarrerak 10 euro balio ditu eta barne daude, ekitaldiak eta txahalki pintxoak.

Korrika 18-aren arropa salgai

Korrika 18aren arropa, kamisetak, sudaderak, etab. erosi nahi duten herritarrek badute lekua. Materiala Urruzola mertzerian, Kale Nagusia 41 zenbakian, salgai dago.

Eskutitza

Epaiketa Militarrik ez!

Esan ohi denez distantziak, bere kabuz, ez digu ahaztarazten. Baina horretara bideratutako politikak tartean sartu ezker, orduan zer? Hori da, gure ustez, duela urte askotatik mundu zabal honetako hainbat herrialdek pairatzen duten egoera eta modu apagarri baten, Ekialdeko Sahararen gatazka.

Dagoeneko bi urte pasa dira 2010eko amaieran 20.000 lagunek beren etxeak atzean utzi eta El Aaiun-etik, Sahara okupatuko hiriburutik, 15 kilometrotara Gdeim Izik kanpamentua sortu zutenetik. Hauxe izan da gaurdaino saharariarren borrokan izan den manifestazio baketsu garrantzitsuenaren. Ekintza honen bidez komunitate internazionalari zera erakutsi nahi izan zioten: ezin dutela gehiago egoera hau jasan; dagoeneko urte gehiegi pasa direla okupazio marokiarren menpe; eskubide osodun herria direla; alegia, beraien herrialdea aske ikusi nahi dutela.

Marokiar gobernuaren indar armatuek Gdeim Izik era bortitzean eta NBERen zein gainontzeko komunitate internazionalaren gaitzespenik gabe desmantelatu zutenean, 24 saharariar detenu eta Salé Rabateko (Maroko) espetxera eraman zituzten ekintza baketsu hartan parte hartu izanagatik soilik. Ordur geroztik, espetxeratuok, beraien aska-

tasuna galdu eta neurrigabeko torturak jasan izana salatu dute, azkenik, datorren otsailaren 1ean marokoko epaimahai militar batek auzitara eramango dituelarik.

Yal-lah Gazte Ekimenetik beste behin ere hurrengo erakunde eta egoerak salatu nahi ditugu: marokiar estatua, 25 espetxeratuak bidegabekoa den prozesu judizialera eramateagatik; espainiar estatua zein komunitate internazionala, egoera larri honen aurrean isilik mantentzeagatik eta berme juridikorik gabeko auziok burutzen uzteagatik; azken urteotan jaso diren eta datorren hilabetean jasoko diren gertakizun bidegabek; eta azkenik, herri saharariarrek etengabe jasaten duen giza-eskubide urrateta.

Guzti horregatik, datorren 26rako maila internazionalen antolatu diren mobilizazioetan parte hartzeko deia zabaldu nahi diogu herritar orori. Guri dagokigunez, datorren larunbatean, urtarrilaren 26an, Bilboko Marokoko Kontsulatuaren aurrean (Errekalde Zumar-bideko 27. zenbakian) egingo den kontzentrazioan parte hartzeko gonbitea luzatzen dizuegu. Auzi militar gehiagorik ez! Saharariar politikari espetxeratuak askatu! Sahara hurra! Sahara askatu!

Birginia Pozo Gonzalez

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Sasoeta-Zumaburu herri-ikastetxea

Herrikoa, solidarioa eta etorkizunari begiratzen diona



Euskal kultura eta euskara bultzatzen ditugu,
geureak direlako

Elkarbizitza proiektua: eskolako partaide guztiak
elkarrekin joateko

Agenda 21 proiektua: inguruarekin bat eginez
Ingelesa: atzerrira begira



Teknologia berrien erabilera: irratia, aldizkaria,
informatika,... gure tresnak direla

Behar berezia duten ikasleentzako:
gertuko jarraipena eta aholkulariak

Liburutegi eta mediateka zerbitzua
Eskola orduraz kanpoko jarduerak

Haur Hezkuntzako ikasleentzat goiz txokoak
Jangela zerbitzua
Garraio zerbitzua



Haur Hezkuntza
Zumaburuko eraikinean

Lehen Hezkuntza
Sasoetako eraikinean

<http://www.youtube.com/watch?v=IVpZKS66q-I>

BILERA EGUNA

Euskaraz : Urtarrilaren 29an, 17:30ean Zumaburuko egoitzan

Gaztelerez: Urtarrilaren 30ean, 17:30ean, Zumaburuko egoitzan

MATRIKULA EGITEKO EPEA:

Urtarrilaren 28tik Otsailaren 8ra
Kalbario bidea 4 Tel.: 943 361226
Zumaburu 13 Tel.: 943 362274



Lasarte-Orian,
geure herrian!

